

1.1.



1.1.

SARRERA

Kaixo, gu Jose Miguel Barandiaran ikastetxeko ikasle talde bat gara. Gure izenak: Illart Beain, Andoni Carranza Ibai Pablos eta Peio Villalba dira.

Lehenik eta behin, gure negozioa prestatzerakoan, hainbat aukeren artean ibili ginen: emakumeen higienerako produktuak banatzeko makina hornitzen dituen enpresa, diskoteka bat... Baina azkenean, aukera guztien artean, food truck bat egitea erabaki genuen, ez baitzen diru inbertsio handia suposatzen, ezta ofizioan esperientzia handirik ere.

Hasiera batean, UPVko gune zentrolean instalatzea erabaki genuen, baina noski, food truck baten abantaila nagusia jatetxe mugikor bat dela da. Beraz, aukera horrekin, bezero gutxiko egunetan beste norabaitera trasladatu ahalko genitzatekeen.

Negozioa prestatzerako orduan, canvas hau egin dugu, gure food truck-a aurrera eramateko nola jakiteko. Lan hau ezinbestekoak diren 9 ataletan banatuta dago. Atal bakoitza food truckaren funtsionamendua siurtazen du. Hona emen gure aurpegiak:



MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure negozioaren kokalekuak finkatzen du gure bezero taldearen ezaugarri nagusiena. Leioako kanpusean kokatuko dugunez salmenta puntua, bertako erabiltzaileak izango dira gure bezero nagusienak. Unibertsitateko irakasleak, ikasleak baita ondoan dauden bigarren hezkuntzako bi ikastetxeetako ikasleak eta irakasleak identifikatu ditugu bezero nagusi bezala. Beraien ikastetxeak zein lantokien kokapenak gure negoziotik gertu daudelako.

Adinari dagokionez, jende gaztea izango da, salduko dugun fast foodaren bezero segmentu potentziala gazteria delako. Egia da gure zerbitzua ez dela egunero bazkatzeko egina, kanpusean badago ostalaritza eskolako jantokia, eguneko menuarekin prezio oso lehiakorrean. Gure bezeroak, beste zerbait bilatzen du: alde batetik **AZKARTASUNA izan daiteke edota **FAST FOOD** janari mota kontsumitzearen nahia, gainera, inguruko hanburgesa onenak salduko ditugunez, kalitatezko hanburgesa prezio ekonomiko batean disfutatu nahi dituzten pertsonak etorriko dira.**

Gure produktuak kontsumitzera etorriko diren pertsonen artean, batzuk elikagai batzuei alergikoak izan daitezke. Segmentu honi astetzeko gure menu guztietan osagaiak argi azalduta egongo dira eta alergenorenak nagusienak adierazita.

Bezero potentzialen artean aurkituko dira ere dieta bereziak kontsumitzen dituztenak (beganoak, begetarianoak...), hauentzako hanburgesa begano baten eskaintza izango dugu.